

Ezpalak

JON TORNER

Marko Armspach eta Asisko Urmeneta saritu dituzte Korsikan

KORSIKA HEGOALDEKO KONTSEILU NAGUSIAK eman die *Ezagutzaren Domina* Marko Armspach eta Asisko Urmeneta marrazkilariei, Aiacciuko Komikiaren Nazioarteko 7. Jaialdiaren baitan. Bi autoreen urteotako lana eskertu nahi izan dute antolatzaileek, “umorea eta sorkuntza ezinbestekoak baitira kultura hedatzeko”. *Decouverte* saria, bestalde, Mathilde Domecq sortzaile gazteak jaso du, eta *Mediterraneo* saria Ric Hochet-en egileek, pertsonaiaren 75. albumaren itzulian. Hain justu, Marko Armspachek, Asisko Urmenetak eta Jokin Larreak sortutako *Gartxot* komikiak –ARGIAK argitaratu zuen– *Mediterraneo* saria jaso zuen 2003an.

Erakunde publikoen datuak libre uzteko eskatuz wikia zabaldu dute

ASKATU DATUAK ekimena abiarazi du euskal internauta talde batek (Garikoitz Araolaza, Beñat Irasuegi, Mikel Lizarralde, Juan Julián Merelo eta Joxe Aranzabal). Wiki bat zabaldu dute erakunde publikoei eskatzeko diru publikoz osatutako datuak libre uzteko. Eskari hori egiteko dokumentua guztion artean osatzea da wikiaren helburua. Hasierako oinarria argitaratu dute. Besteak beste, datu horiek (informazio geografikoa, toponimia, datu soziologikoak...) formatu eta lizentzia libreekin zergatik eman beharko lirartekeen azaltzen dute. Dokumentua euskaraz osatuko da, baina gaztelarara edo beste edozein hizkuntzara itzultzeko edonork lagun dezake. [<http://askatudatuak.pbworks.com>]

Juan Huarte Jorge Oteiza Museoa Fundazioko presidentek dimisioa aurkeztu du. Karguari maitasunez heldu ziola adierazi du Juan Huartek, baina bere bizitzako etapa garrantzitsu bat ixteko unea heldu dela. “Fundazioari ekarpen berriak egingo dizkion pertsona batek hartu behar luke kargua”, esan du. Pertsona egokia, Huarte beraren hitzetan, Pedro Manterola (museoko zuzendari ohia) izango litzateke.

Abdela Taia idazle marokoarraren *Malenkonía arabiar bat* plazaratu du Alberdaniak, euskaraz, katalanez eta gaztelaniaz. Homosexuala da Taia. Bere herrialdetik alde egin behar izan zuen, eta Parisen bizi da. Homosexuala da Abdela ere, liburuko protagonista nagusia. Ihes egin nahi du, eta zinema zuzendari bihurtu. Patxi Zubizarretak itzuli du liburua euskarara.

● **Nagore Tolosa itzultzaileak *Beterriko Liburuan*:** «Itzultzailearen lana horretan datza, zenbat eta ezku-tuagoan geratu, orduan eta lan hobea egin duzun seinale. Eta hori da itzultzailearen tragikomedia (...) Itzulitako testua errezeloarekin hartzen zen lehen, eta, tamalez, oraindik ere bai askotan; euskarazko itzulpen bat hartu eta irakurtzen hasi baino lehen, badakigu itzulpen baten aurrean gaudela. Seguru gaztelaniazko liburu bat hartzen dugunean ez dugula gauza bera pentsatzen. Testu bat hartutakoan itzulpena dela jakitea jarrera oso ona iruditzen zait baina, liburua eskuan, ezpainak okertu gabe izan beharko luke».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Dive Tarpoon urpekaritza

Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxe: 94 4912577
divetarpoon@euskalnet.net
www.divetarpoon.com